



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko irailaren 21a

106. ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A :

Galderak:

- Galdera, Eraikuntzaren sektorerako Industrializazio eta Digitalizazio Zentro Nazionalari buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (3. or.).
- Galdera, 2021-22 ikasturterako gradu eta master ikasketetarako beken deialdiari buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, Banda Zabalaren II. Plan Gidariaren garapenari buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, sexuaren araberako ikasle-bereizketa egiten duten ikastetxeei buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (5. or.).
- Galdera, ikastetxe publikoetako eskolaz kanpoko jardueretarako protokoloari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (5. or.).
- Galdera, gure Komunitateari eginiko eskumen-eskualdaketarako negoziazioei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Prestazio Handiko Trenaren proiektuari buruzkoa. Jorge Aguirre Oviedo jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, 2021-2022 eskola-ikasturtearen hasierari buruzkoa. Jorge Aguirre Oviedo jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, hezkuntza bereiziko zenbait ikastetxek ituneko araudia ez betetzeari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Nafarroako herri folkloreak adierazmolde desberdinak sustatu eta kudeatzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, biomasa-eskaintza eta -eskaera kudeatzeko mugaz gaindiko proiektuaren balorazioari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, nafar gazteriaren egoerari buruzkoa. Ángel Ansa Echeagaray jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, txertoen soberakina beste herrialde batzuetara bidaltzeari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, autobia eta autopistetako bidesariei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, COVID-19agatiko produktibitate-osagarria deuseztatzen duen epaian adierazitako akatsei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (10. or.).

- Galdera, Osasun Departamentuak itxaronaldien egoera beldurgarria hobetzeko ezarritako neurriei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Iruñeko trenbide-begiztari eta Abiadura Handiko Trenaren geltoki berriari soluzioa emateko denbora- eta finantzaketa-aurreikuspeni buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Foru Administrazioan telelana egiteko erregulazio berriari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (12. or.).
- Galdera, aisialdiko etxabeak irekitzeari buruzkoa. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egin du (13. or.).
- Galdera, ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxe pribatuekiko itunei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (14. or.).
- Galdera, gastu-muga igotzeari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzen ez duten edukiak dauzkaten testuliburuei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Nafarroako protokoloak Genero-indarkeriaren aurkako Hobekuntza eta Modernizazio Planeko neurri urgenteen katalogora egokitzeko aldaketei buruzkoa. Osoko Bilkuran izapidetzea (16. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Eraikuntzaren sektorerako Industrializazio eta Digitalizazio Zentro Nazionalari buruzkoa.*MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak aurkeztutako galdera, Eraikuntzaren sektorerako Industrializazio eta Digitalizazio Zentro Nazionalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariari, 2021eko irailaren 21eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Jakin ondoren Nafarroan egonen dela Eraikuntzaren sektorerako Industrializazio eta Digitalizazio Zentro Nazionala:

Zein izanen dira horren helburuak, ezartzepeak eta finantzaketa?

Iruñean, 2021eko irailaren 13an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

Galdera, 2021-22 ikasturterako gradu eta master ikasketetarako beken deialdiari buruzkoa.

ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkeztutako galdera, 2021-22 ikasturterako gradu eta master ikasketetarako beken deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Lecumberri Urabayen jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau

egiten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Justizia birbanatzailearen parte eta herritar guztien aukera-berdintasunaren berme den aldetik, beka-sistemak beti izan du garrantzi handia sozialistontzat. Gure ustez, bereziki garrantzitsua da gaur egun pandemiaren eraginez zailtasun ekonomikoak dauzkaten familientzat. Hortaz, beka-sistema bezalako auziak funtsezkoak dira ikasle jakin batzuek unibertsitate-prestakuntza jaso ahal izan dezaten.

2021-22 ikasturterako gradu eta master ikasketetarako beken deialdiari dagokionez: Zer ildo nagusi ditu, zer aldaketa sartu dira aurreko ikasturteko deialdiarekin alderatuta eta zein da aurkeztutako eskabideen bilakaera?

Iruñean, 2021eko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

Galdera, Banda Zabalen II. Plan Gidariaren garapenari buruzkoa.

ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkeztutako galdera, Banda Zabalen II. Plan Gidariaren garapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Lecumberri Urabayen jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zeintzuk izaten ari dira 2021 honetan Banda Zabalen II. Plan Gidariaren mugarri nagusiak eta planaren garapenaren adierazleen bilakaera?

Iruñean, 2021eko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

Galdera, sexuaren arabeko ikasle-bereizketa egiten duten ikastetxeei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, sexuaren arabeko ikasle-bereizketa egiten duten ikastetxeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno Gurpegui jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuarentzat ustekabekoa izan al da egiazki, Hezkuntzako kontseilariaren adierazpenetatik ondorioztatzen den bezala, sexuaren arabeko ikasle-bereizketa egiten duten ikastetxeek Lehen Hezkuntzako lehen maila baizik ez dutela misto bihurtu?

Iruñean, 2021eko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, ikastetxe publikoetako eskolaz kanpoko jardueretarako protokoloari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, ikastetxe publikoetako eskolaz kanpoko jardueretarako protokoloari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno Gurpegui jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

• Hezkuntzako kontseilariak zer urrats egiteko asmoa du, ikusirik ikasturte-hasiera honetarako protokoloak Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleengan eta ikastetxe publikoetako zuzendariengan sortu duen ondoeza, irakasleen bizkar uzten baitu eskolaz kanpoko ekintzen zama, nabarmen igota haien zuzeneko irakastaldi-orduen kopurua?

Iruñean, 2021eko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, gure Komunitateari eginiko eskumen-eskualdaketarako negoziazioei buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, gure Komunitateari eginiko eskumen-eskualdaketarako negoziazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako ahozko galde-

ra hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko Departamentuak hilaren 23an egitekoa den Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuaren ustea al da talde parlamentarioek informatuta behar dutela egon gure Komunitateari eginiko eskumen-eskualdaketarako negoziazioen bilakaerari buruz? Baiezkoan, Gobernuak noizko dauka asmotan Estatuako Gobernuarekin trafiko-eskumenak eskualdatze aldera abiatuta dauden negoziazioen edukiaren berri guri emateko, eta batez ere, Estatuak igorritako proposamen teknikoaren eta proposamen horri Gobernuak eman zion erantzunaren berri?

Iruñean, 2021eko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Prestazio Handiko Trenaren proiektuari buruzkoa.

JORGE AGUIRRE OVIEDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkeztutako galdera, Prestazio Handiko Trenaren proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Aguirre Oviedo jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak Prestazio Handiko Trenerako proiektuan eginak izanik gure Erkidegoan eragiten duten azken aurrerapenei buruz?

Iruñean, 2021eko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Jorge Aguirre Oviedo

Galdera, 2021-2022 eskola-ikasturtearen hasierari buruzkoa.

JORGE AGUIRRE OVIEDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkeztutako galdera, 2021-2022 eskola-ikasturtearen hasierari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Jorge Aguirre Oviedo jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du 2021-2022 eskola-ikasturtearen hasierari buruz?

Iruñean, 2021eko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Jorge Aguirre Oviedo

Galdera, hezkuntza bereiziko zenbait ikastetxek ituneko araudia ez betetzeari buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkeztutako galdera, hezkuntza bereiziko zenbait ikastetxek ituneko araudia ez betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Pedro González Felipe jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Berriki eginiko adierazpenetan, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak azaldu du hezkuntza bereiziko zenbait ikastetxe urratzen ari direla ituneko araudia. Zer arrazoitan oinarritzen da adierazpen horiek egiteko, eta zein dira Nafarroako Gobernuak egin asmo dituen hurrengo urratsak?

Iruñean, 2021eko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Galdera, Nafarroako herri folkloreakaren adierazmolde desberdinak sustatu eta kudeatzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako herri folkloreakaren adierazmolde desberdinak sustatu eta kudeatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako herri folkloreakaren adierazmolde desberdinak sustatu eta kudeatzeari alorreko Kultura Departamentuaren politikak direla-eta, parlamentari honek honako hau jakin nahi du:

- Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak orain arteko urratsei buruz, eta zer erronka ezarri ditu datozen hilabeteetarako?

Iruñean, 2021eko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, biomasa-eskaintza eta -eskaera kudeatzeko mugaz gaindiko proiektuaren balorazioari buruzkoa.

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztutako galdera, biomasa-eskaintza eta -eskaera kudeatzeko mugaz gaindiko proiektuaren balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du,

bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Azken hiru urteetan zehar, Nasuvinsa sozietate publikoak mugaz gaindiko lankidetzarako proiektu bat garatu du Europaren hego-mendebaldeko, langai hartu duena toki-mailako biomasa-eskaintza eta -eskaera kudeatzeko eredu bat bultzatzea, bai eta sektorea garatzea ere, gure oihanetatiko energia garbi horren ekoizpenerako eta merkaturatzerako.

Horregatik guztiagatik zuzentzen zaio galdera hau bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariari.

Zer balorazio egiten du Gobernuak langintza horren emaitzaz?

Iruñean, 2021eko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

Galdera, nafar gazteriaren egoerari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztutako galdera, nafar gazteriaren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakari-tzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilari Javier Remírez Apesteguía jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten du nafar gazteriaren egoerari buruz?

Iruñean, 2021eko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, txertoen soberakina beste herrialde batzuetara bidaltzeari buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako galdera, txertoen soberakina beste herrialde batzuetara bidaltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentariaren elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak irailaren 23ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer ahalmen dauka Nafarroako Gobernuak bere txerto-soberakinarekin txertoaren beharra eta premia duten beste herrialde batzuei laguntzeko?

Iruñean, 2021eko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, autobia eta autopistetako bidesariei buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, autobia eta autopistetako bidesariei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Haren ustez, PSOE kontraesanean erortzen al da autobietako bidesariak ahotan darabiltzanean, autopistak liberalizatzen dituen bitartean?

Iruñean, 2021eko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, COVID-19agatiko produktibitate-osagarria deuseztatzen duen epaian adierazitako akatsei buruzkoa.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako galdera, COVID-19agatiko produktibitate-osagarria deuseztatzen duen epaian adierazitako akatsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasun Batzordean ahoz erantzun dakion:

Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiak deusez deklaratu du 284E/2020 Ebazpena,

zeinean Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak “irregulariki eta justifikaziorik gabe zehazten” baitu “COVID produktibitate-osagarria ordaintzeko zenbatekoa”.

Erizain-sindikatuak aurkaratu egin zuen ebazpena, ezen, haren ustez, Nafarroako Osasun Zerbitzuak “bere jarduera guztiak bideratu behar ditu gardentasun, proportzionaltasun eta berdintasun printzipioen ildotik, eta betiere foru araudiari jarraikiz, zeinak esanbidez adierazten baitu diru-osagarriak lege edo erregelamendu-xedapen baten bidez ezarri behar direla; batez ere, ez badaude Aurrekontu Legean zehaztuta, kasua den bezala”.

Alabaina, ebazpen horretan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak “justifikaziorik gabe zehazten zuen Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalen ordainduko zitzaien kopurua, bereizketa arbitrario bat eginez, proportzio- eta berdintasun-argudioetan oinarrituta ez zegoena; eta, gainera, inolako elkarriketarik ez eta negoziazio kolektiborik ere egin gabe, indar sindikalekiko akordio baterako gutxieneko oinarria emanen zuena”.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

• Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak asmorik al du COVID-19agatik produktibitate-osagarria deuseztatzen duen epaian adierazitako akatsak zuzentzeko, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen

ordezkaritzarekiko negoziazio- eta akordio-prozesu bati ekinez?

Iruñean, 2021eko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Galdera, Osasun Departamentuak itxaronaldien egoera beldurgarria hobetzeko ezarritako neurriei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, Osasun Departamentuak itxaronaldien egoera beldurgarria hobetzeko ezarritako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri ezarriko ditu Osasun Departamentuak epe labur eta ertain-luzera, itxaronaldien egoera beldurgarria hobetzeko?

Iruñean, 2021eko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Iruñeko trenbide-begiztari eta Abiadura Handiko Trenaren geltoki berriari soluzioa emateko denbora- eta finantzaketa-aurreikuspeni buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako galdera, Iruñeko trenbide-begiztari eta Abiadura Handiko Trenaren

geltoki berriari soluzioa emateko denbora- eta finantzaketa-aurreikuspeni buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Eginiko iragarpenez gain, zer denbora- eta finantzaketa-aurreikuspen daukazue Iruñeko trenbide-begiztari eta Abiadura Handiko Trenaren geltoki berriari soluzioa emateko?

Iruñean, 2021eko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Foru Administrazioan telelana egiteko erregulazio berriari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Foru Administrazioan telelana egiteko erregulazio berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Lehendakarietzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariak irailaren 23ko Osoko Bilkuran erantzun diezaion:

Zertan da Foru Administrazioan telelana egiteari buruzko erregulazio berria?

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, aisialdiko etxabeak irekitzeari buruzkoa.

BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkeztutako galdera, aisialdiko etxabeak irekitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, lehendakariorde eta Lehendakari-tzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Lehen lehendakariorde eta Lehendakari-tzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak, Gobernuaren izenean, lan-bilera izan zuen iragan asteazkenean irailak 15, Iruñeko alkatearekin, botiloiak direla-eta azken asteotan gertatu diren istiluak "mozten" saiatzeko. Bileraren ostean, kontseilariak adierazi zuen "piperoak eta etxabeak irekitzeak eta antzeko neurriek arrisku-egoerak murrizten" lagunduko dutela. Biharamunean, Osasuneko kontseilariaren irailaren 14ko 34/2021 Foru Agindua argitaratu zen; horren bidez, luzatu eta hein batean aldatu zen Osasuneko kontseilariaren ekainaren 29ko 22/2021 Foru Agindua, zeinaren bidez malgutu egin baitziren COVID-19aren aurka orain arte hartutako neurriak, besteak beste, aisialdiko etxabeak, piperoak eta gisakoak.

Gobernuaren ustez, aisialdiko etxabeak irekitzea neurri egokia al da botiloiek eragindako istiluak mozteko?

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Foru parlamentaria: Blanca Regúlez Álvarez

Galdera, ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxe pribatuekiko itunei buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotatun handiko galdera, ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxe pribatuekiko itunei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa De Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotatun handiko honako galdera hau egiten du, Parlamentu honek 2021eko irailaren 23an eginen duen Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena.

1. artikuluko a bis) apartatuak honako hau dio:

«Ikasle guztientzako hezkuntzaren kalitatea, inolako diskriminaziorik gabe jaiotza, sexua, arraza, jatorri etniko edo geografikoa, desgaitasuna, adina, gaixotasuna, erlijioa edo sinesmenak, sexu-joera edo sexu-identitatea nahiz bestelako edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial direla-eta».

Ikastetxe publiko eta pribatuetako eskolatzeari buruzko 84. artikulua honako hau dio 1. eta 3. apartatuetan:

«1. Hezkuntza-administrazioek ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko aukera arautuko dute eta, horretarako, hezkuntzarako eskubidea, berdintasun-baldintzetan sartzeko aukera eta gurasoek edo tutoreek ikastetxea aukeratzeko askatasuna bermatuko dituzte. Araudi horren bidez, ikasleak arrazoi sozioekonomikoengatik edo bestelako arrazoiengatik bereiztea ekiditeko hartu beharreko neurriak ezarriko dira. Nolanahi ere, hezkuntza-laguntzaren berriazko premia duten ikasleak ikastetxeen artean era egokian eta orekatuan banatzea bilatuko da».

«3. Ez da inolaz ere diskriminaziorik eginen jaiotza, sexua, arraza, jatorri etniko edo geografikoa, desgaitasuna, adina, gaixotasuna, erlijioa edo sinesmenak, sexu-joera edo sexu-identitatea nahiz bestelako edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial direla-eta»

Hezkuntza Departamentuarekin hartutako konpromisoaren eta araudiaren aurka, zenbait ikastetxek sexuaren arabera bereizita dauzkate ikasleak eta irakasleak Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasgeletan.

Hezkuntza Departamentuak ituna kenduko al die ikasleak eta irakasleak sexuaren arabera bereizita dauzkaten ikastetxeei? Departamentuak zer egiteko asmoa du ikastetxe horiek LOMLOEn horri dagokionez ezartzen dena bete dezaten?

Iruñean, 2021eko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, gastu-muga igotzeari buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, gastu-muga igotzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2021eko irailaren 23ko Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Gastu-muga igotzeak zer ekarriko dio Nafarroari?

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

Galdera, Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzen ez duten edukiak dauzkaten testuliburuei buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzen ez duten edukiak dauzkaten testuliburuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Informazio faltsua ematen duten eta Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzen ez duten edukiak dauzkaten testuliburuak erretiratu al dituzu? Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Nafarroako protokoloak Genero-indarkeriaren aurkako Hobekuntza eta Modernizazio Planeko neurri urgenteen katalogora egokitzeko aldaketei buruzkoa.

OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Osoko Bilkuran izapidetu dadin Patricia Perales Hurtado andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako protokoloak Genero-indarkeriaren aurkako Hobekuntza eta Modernizazio Planeko neurri urgenteen katalogora egokitzeko alda-

ketei buruzkoa. Galdera 2021eko irailaren 7ko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias